

## ERRESPETUA

Olatz Erkoreka Javier

*Gernika*

Zein polita izango litzatekeen hogeita hamar urte zure bizitza atzeratzea. 1980an bizitzea, eta han zegoen musika giroa izatea. Eta ez oraingotan bezala dena musika elektronikoak eta DJ-ak. Nik ez diot graziarik ikusten musika horri, eta benetako musika hori ez dela esaten diot neure buruari. Baina ez naiz ausartzen, besteei nik musika hori asko ez dudala gustuko esaten.

Nik punka, heavya eta rocka gustuko ditut. Eta nahiz eta besteek musika hori “paleolitokoa” dela esan, nik gustuko dut. Etxera joan, neure *pendrive*-a (musika betea) hartu, ordenagailuan entxufatu, eta han egoten naiz 2 ordu musika entzuten: Aerosmith, Black Sabbath, Iron Maiden, Deep purple, Metallica... A!!! Eta Green Day nire gustukoenetakoa. Egun guztia musika entzuten pasatzeko gogoia izaten dut, baina hori eragozten didan zerbait dago: biolina.

Txikitatik jotzen dut biolina, baina inoiz ez dut sentitu biolinaren soinua bihotzean. Nik ez dut

musika klasikoa ez horrelako musikarik atsegin, nik rocka dut atsegin! Gurasoei esaten diet, baina beraiek ez didate kasu apurrik ere egiten. Nik beti esaten diet instrumentu bat jotzeko, gustatu egin behar zaizula! Baina beti bezala ez didate kasu apurrik ere ez egiten.

A!, ez naiz aurkeztu ere egin, nik Markel dut izena eta kostaldeko herri batean bizi naiz: Ea izenekoa. Lehen nindoan bezala hau zen nire bizitza tipikoa; eskolara joan, handik etorri, musika entzun, lanak egin, afaldu eta ohera joan. Baina dena aldatu zen bi hilabete eta zerbait gehiagoan.

Nik uste nuen musika entzuten bakarrik sentitzen zela, baina geroxeago zerbait gehiagoren beharra sentitu nuen. Instrumentu bat jo nahi nuen, eta nahiz eta aukerak izan beraiek “garestiegia da laztana” esanez dena izorratzen zidaten. Eta hori entzutean, nire gelan entzerratu nintzen zerbait pentsatzeko. Eta oso haserre nengoen ez nien berbarik ere egin gurasoei. Orduan biolina ez jotzea pentsatu nuen, baina horrek ez zuen ezertarako balio izan, zeren ipod-a kentzeaz, telebista kentzeaz, ordenagailua kentzeaz eta nire musikaz betetako *pendrive*-a kentzeaz mehatxatu ninduten. Eta noski nik beraiei kasu egin behar izan nien. Gainera, gurasoak bi ziren eta ni bat, eta bi baten aurka beti bik irabazten dute, eta are gehiago biak gurasoak badira. Etxean

amak esaten zuena egiten zen beti eta aitari ez zitzaion ni gitarrara apuntatzeak axola, baina amak ezetz esaten zuenez... ba, noski, aitak ez diskutitzearren jartzen zen beraren alde.

Gainera momentu horretan, nire bizitza ez zihoan ondo zeren eskolan nire musikarengatik ni kritikatzten ninduten; txima-luze, paleolitoko gizon eta horrelako burlak eta isekak esanez egu-nero. Eta noski ni gurasoengana negarrez nin-doan. Baina beraiek "lasaitu seme, lasaitu" esanez mimatzen ninduten, horrekin ni trankilduko banintz bezala.

Hurrengo astean amak zera esan zidan:

Seme, aitak lan berri bat aurkitu du Bilbon, eta hara joango gara bizitzera. Asko sentitzen dugu, baina hala izango da. Ikastolaz ere aldatuko zaitugu, eta biolin klaseak beste toki batean izango dituzu.

Nik nahiko ongi hartu nuen, zeren ikastolan egun guztia isekaka zebiltzan, eta nahiko pozik eta esperantza positiboekin nengoen.

Hurrengo egunean ikastolan albistea eman nien, eta beraiek inportantea izango ez balitz bezala hartu zuten, baina badakit barrutik penatuta zeudela, uste zutelako ni beraien erruz joango nintzela.

Azaroaren erdialdean, Bilbora joan ginen, eta ikastola berrira joan ginen apuntatzen lehenengo egunetik. Arratsalde berean biolineko klaseak

ematen zituzten musika eskolara joan nintzen amarekin. Han barruan idazkaria zegoen bere gauzak egiten eta amak biolineko klaseetara apuntatzeko non apuntatu behar zen esan zion. Berak biolineko maisuari deitu zion, eta han etorri zen maisu ilehori eta pekadun bat. Bere agendan nire datu batzuk apuntatu zituen eta ea zein egunetan izango ziren klaseak esan zidan.

Ikastolan ere atentzioa deitu nien bi mutili, entzuten nengoen musikarengatik, eta galdetu egin zidaten ea nola deitzen nintzen. Ea beraiekin geratu ahal nintzen esan zidaten eta ondo jausten zitzaizkidanez lehenengo momentutik, baietz esan nien.

Biolineko klaseko lehenengo egunean nire bi lagunetako bat ikusi nuen, eta galdetu egin nion ze instrumentu jotzen zuen. Bateria erantzun zidan, zenbat balio zuen ere galdetu nion eta zenbat bai bateriak, eta bai gitarrak. Biolineko klasea amaitu eta gero amari komentatu nion eta “beharbada” batez erantzun zidan.

Aste bat eta gero, gitarra erosita eta klaseetara apuntatuta nengoen. Egunero entsaiatzen nuen, eta bi lagunekin nengoen astebururo entsaiatzen euretako baten etxean, eta ordu asko sartu genituen.

Neguan institutuko jaialdia zegoen, eta bi kanta jotzea pentsatu genuen hirurok, astean birritan entsaiatzen genuen. Eguna heldu zen arte,

eta jo genuenean txalo zaparrada izan genuen denon partetik. Orduan izan zen denen errespetua irabazi genuenean hirurok.

Oso pozik sentitu nintzen.

Dena arreglatu zen: nik neure eskubideak nituen, gitarra jotzen nuen, eta gainera hurrengo hilean, gurasoei demostratu nien, biolina ez nuela zertan jo eta desapuntatu egin ninduten, baina hori beste istorio bat da.